



## ANAI PEDRO MARÍA ALBERDI ALBERDI

Azkoitia (1937.08.31) – Irún (2021.07.18)

Hitzaren liturgiako testuak:

Nk 3, 17-26 / Sal 26, 1. 4. 7 y 8b y 9a. 13-14 / Mt 11, 25-30

“Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna,  
gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako  
eta jende xumeari agertu.

Bai, Aita, goretsia zu, horixe izan baituzu gogoko.”

(Mateo 11, 25)

*“Zatozte niregana, nekatu eta zamapetu guztiok, eta neuk emango dizuet atsedena”*. Gure Anaiak sufrimendu fisiko eta borroka pertsonala jasan ondoren, indarrak amaitu zaizkionean eta Jaunarengan zuen esperantza ere frogatua izan duenean, hartua du atsedena Jaunaren besoetan, Jauna leiala eta ona baita bere bila dabilzanentzat.

Aldi berean, agur esateko eta eskerrak emateko den ospakizun honek lagunduko digu bizitza eta heriotza ondo enfokatzen, berpizkundearen bizipenean jarriz; geure bizitza bera, mugak eta guzti, harantzago begira jartzen, Jainkoaren misteriorantz, maitasun-misterio, beldur guztiak uxatzen dituen neurrigabeko maitasunerantz. Hau da gure berpiztea, gure bizitza Jainkoa den, eta geure bihotzetan dagoen, betiereko errealitatera bideratzea.

Bizitzaren gorabeherak egonezin eta asaldura iturri izaten dira, antsietate eta asegabetasun iturri; eta esperientzia horiek ez ziren falta izan gure Anaiaren bizitzan. Amaigabeko zurrumbilo baterantz goazenean, atsedena eta bakea batzuetan desagertu egiten dira, estuasuna eta larritasuna sortuz. Hala ere, ez daude gugandik urrun. Egia esan, gogamena isiltzen denean, atsedena agertzen da. Hori da Jesusen hitzen esanahi sakona: “zatozte niregana” hori, “zatozte errealitatera” deia da, den guztiaren hondoa den horretara, eta, beraz, geure hondo, sakon propio horretara.

Horretarako, ebanjelioaren otzantasuna behar dugu, jakinduria handiago bati amor emanez sortzen dena; eta horren aurrean uzten ditugu “ego”ak, norbere niak, berezkoak dituen zurruntasun eta intolerantzia. Eta horrek umiltasunetik, egiatasunera, norberaren egia bilatzera eta ezagutzera garamatza, edozein autosufizientziatik irtenaz.

Honetaz apustu egin zuen Pedrok bere bizitzan zehar, eta emantzipatu egin zen “adin txikikoa” izatetik eta laguntzeko “tutoreak” izatetik, ez oinazerik eta ulertezinik gabe; eta arriskuak eta ahuleziak onartuz, pentsamenduaren eta jardunaren erantzukizuna bere gain hartu zuen, “adin-nagusitasunaren” alde eta bere buruarekiko leialtasunean hazteko apustua egin zuen; eta beti besteenganako hurbiltasunetik, bereziki ahulenenganako hurbiltasunetik, haientzat ere lasaitasun- eta atsedena-iturri izaten jakin baitzuen, batez ere neurririk ez zuen bere lanaren bitartez, baina baita bere aholku sutsuekin ere (nahiz eta hauek ez izan beti egokiak edo bidezkoak); eta nola ez, bere bilatzaile eta sendatzaile jardunbideekin, naturarekin bizitzeko edo musikatik poza eta kontenplazioa deskubritzeko bere gonbidapenekin...

Unibertsoaren mugimendu ebolutiboaren jatorrian dagoen Oinarrizko Energia, “ama-iturria” eta “maitasunezko errealitatea”, guk Jainko deitzen dioguna, badirudi bereziki presente eta aktibo dagoela, ez bakarrik izatearen erretze, haurdunaldi eta jaiotza dagoen tokian, baizik eta, bereziki, kaosa, hutsunea, gabezia... dagoenean, izakiak beren sorrerara, eboluziora, konplexutasunera eta betetasunera eramanez. Misterio-dinamika honetan igaro da gure Anai Pedroren bizitza, duela ia 84 urte Azkoitian jaio zenetik, Maria eta Pedrori esker, atzo Izatearekin erabateko komunioa egin zuen arte.

Bere ibilaldia La Salle-enearekin loturik dago (1949an iritsi zen etxe honetara, hemen egin zuen hasierako formazio osoa eta azken urteak ere hemen bizi izan ditu), baina baita San Asensioko Anaigaitegi Txikiarekin ere (1957-1962), fundatzaileetako izan zen, baita Herrerako herri-eskolarekin (1963-1964), Sestaoko Apendizen Eskolarekin (1965-1970), Valdefierrerekin (1970-1977 eta 2015-2018), Andoain (1978-1981 eta 2008-2009) eta Huarterekin ere (2010-2015). Anai Pedrok eta bere egintzek aztarna esanguratsuak utzi zituen, baita ere, 27 urtetan hain maite izan zuen Afrikan: Dapaong eta Togoville Togon (1981-1990), Bohicon Beninen (1990-1995) eta Daloa Boli Kostan (1995-2008).

Eta ez, ez zen aktibismo huts edo berriketa hutsezko ibilbide bat izan; Paul Tillichen dioen bezala: *“Pertsonaren espiritua Unibertsoan bere presentziari zentzua ematera aplikatzen denean, jada ez da bere existentziaren azalean bizi, baizik eta bere izatearen barnean bizi da. Orduan, bere ‘sakontasunaren’ putzua zulatzen du eta bere ‘espiritualtasunaren’ tenplua eraikitzen du”*.

Horregatik Pedrogatik esan dezakegu Xabier Letek Xalbadorren heriotzean kantatzen zuen hura:

*“Adiskide bat bazen  
orotan bihozbera...  
Hitzen lihoa iruten  
bere barnean irauten  
oinazez ikasia...  
Lotura guztietatik  
gorputzaren mugetatik  
aske sentitu nahirik.  
Azken hatsa huela  
bertsorik sakonena  
inoiz esan ezin diren  
estalitako hegien  
oihurik bortitzena...”*

Jesusek Jainkoa Errealitate edo Indarra bezala esperimendatzen du, eta Aita deitzen dio. Bere izatea guztiz ematean, sortu, eraldatu, berriro, sendatu, osotasunez bete... egiten du. Esperientzia honek bere jardura guztia sostengatuko du eta bere bizitzaren norabidea eta estiloa zehaztuko ditu. “Besteentzako pertsona” bihurtuko du, eta horrek sendatu eta sostengatu egingo ditu inperfekzio, pobrezia eta ahultasun forma eta egoerak jasaten dituzten guztiak.

Horrela, Jesusengan deskubritzen dugu denok eskaleak gabela eta Jainkoaren eskuzabaltasunaren ugaritasunagatik bizi gabela eta baliotsuak gabela, Jainkoa dugulako Biziazen azken misterioa. Garen guztia eta daukagun guztia dohain doakoa denez, besteekiko “betebehar” bakarra dugu: ematea, partekatzea, zerbitzatzea, maitatzea azken batean.

Eta maitasun-mota hau agertzen eta zehazten denean, gure Anai Pedroren bizitzan bezala, erakartzen gaituzten Jainko Presentziaren zeinuak agertzen dira, gure baitan, gure izatearen sakonenean, benetan


garenaren mailan bizitzeko desira piztuz, non maitasuna bakarrik sar daitekeen. Pedroren bizitzak “Su beroz” (“Fuego Padre”) hitz egiten digu, hots, mundu berri bat jaso, berri, sendatu, sortu eta gizatasun berri baterantz eboluzionatzen duen Indar batez. Pedroren munduan, Jesusenean bezala, dena zen harridura, miresmena, kontenplazioa, emozioa, errukia; bai, Jainkoa giza miserian ere agertzen zaigu, gure Anaiaren, geure ahulezia eta larritasunen bidez, larritasuna dagoenean maitasunaren beharra baitago. Eta maitasunaren beharra dagoen lekuan, han dago Jainkoa, Jesusek deskubritzen laguntzen digun bezala: bestea, batez ere pobrea eta ahula baldin bada, Jainkoaren presentzia eta agerpenaren leku pribilegiatua da mundu honetan.

Jesusen proiektua pertsoneri Maitasunaren Jatorrizko Iturria aurkitzen laguntzean datza, beti beraiekin izan dena. Horrela, gu ere “berri onaren” mezulari eta munduaren aurpegia eraldatzeko gai izango den “gizateria berri” baten eraikitzaile bihurtu gaitezke. Hau da Jesusen Bidea egiten doan pertsona ororen zentzua. Bide hori dagoeneko bukatu du Pedrok eta gure Anai Patxi Ezkiagak egin zigun gonbidapena betea aurkitzen dugu Pedrorengan: *“Ametsetatik haratago bizitzen saiatu beharko genuke...”*

Eskerrik asko, Pedro, lagun hurbila izan zakizkigulako Jesusen bidean.

Egun haundira arte!

*Ametsetatik haratago bizitzen  
saiatu beharko genuke,  
arrano harroak bagina bezala  
mendirik altuenaren gainetik  
hegaldatzen;  
zorabioaren beldurrik gabe  
haizearen besoetan  
dantzatzen;  
abenturazale ausart,  
desertuko egarriari muzin egiten;  
harkaitzik sendoenak huts egiten digunean  
gaueroko izarren pean etzaten;  
bizitza itsasotik kairako, kaitik itsasorako  
joan-etorriko bidaiari  
ematen.*

A bald eagle is shown in flight, soaring across a clear blue sky. The eagle's wings are fully extended, and its tail feathers are visible. The eagle's head is turned slightly to the left. The background is a soft, clear blue sky with a slight gradient.

**Deberíamos tratar de vivir  
más allá de los sueños,  
como si fuéramos orgullosas águilas  
volando por encima de las montañas  
más altas;  
deberíamos tratar de bailar  
en brazos del viento,  
sin miedo al vértigo;  
aventureros audaces  
burlando la sed del desierto;  
deberíamos tratar de dormir nuestras noches al raso  
cuando nos fallen las rocas más seguras;  
y tratar de vivir nuestra vida  
en viaje de ida y vuelta  
del mar al puerto, del puerto al mar.**

*Patxi Ezkiaga*